

ANTXIÑAKO  FOTOGRAFIAK

Oñatin be moldautako beste pelikula bat

Gure herrixak izan dau eta badako argazkilarixak ez ezik, **zinegille eta zinezaliak be karriaitteko** zertxo berezi bat. Kale aldian dagozen jauregi, etxe, eliza, plaza, kanto, itturri eta beste eraikin, leku eta txoko ikusgarri-interesgarriak **marko egogixa** eskintten daue era askotako dokumentalak eta erreportajiak egitteko. Eta baserri-giroko hamasei auzuetan eta auzuetatik ikusi geinkien paisaje eta paraje zoragarri askotan be **eszenarixo aproposak** topauko dittugu filmaziño-lanetarako. Hori dala eta, batetik eta bestetik hainbat profesional eta zaletu etorten xaku Oñatira euren irudixak grabaittera.

Gaur egungo tramankulu modernuakin samurragua da plano eta imajiña ederrak ataratia; baiña sasue batian estribillo asko egin bihar izaten zan emaitza itxuroso bat eskuraketako. Aspalditxotik zinegille txantxikuarrak, amateurrak batez be, hemen bertan moduketan diharduein lan inportantiak ahaztu eta baztertu barik, orainguan, alde edo molde, **Oñatin filmautako pelikula pare bat** aittatuko dogu. Gaztetxuak giñala, **Diez fusiles esperan** izenekuaren eszena batzuk errodau ziran **1958xan San Migel parrokiako korupeian** eta **Lazarragarren torriaren burdinazko ate** zaharraren inguruan. Gaixa I. karlistadako pasadizo batian oiñarrittuta eguen eta **zuzendarixa José Luis Saenz de Heredia** izan zan, Francoren kuttunenetakua. Baiña gure artian ikusmin haundixena **Paco Rabal** artistiak sortu eben, pelikulan Jose Iribarren protagonista, ordurako zine-munduan nahiko ezaguna zan-eta.

Askoz beranduago, **1994ko udazkenian**, zarata eta zalaparta gehixago ekarri oskun hona **Pierre Boutron zuzendari frantsesaren Fiesta** pelikuliaren errodajiak. **José Luis De Villalongaren** izen bereko nobeliari jarraitetan otsan; Mondraguen **1936ko gerra zibillian** frankisten ardurapeian izan ei ziran **fusilamenduen bertsiziña** agertu gura eben. Arrasate gerraostian lartxo aldatu dalako, pasarte asko Oñatin grabaittia pentsau euen produkturiak, **Jean Louis Trintignant** lako artista ezagunekin. Hartarako **ixa herri guztia dantzan** jarri zan: plaza nagusixari, hainbat kaleri, unibersidadeko patixuari eta beste leku batzueiri **zahar itxuria** emun xaten; eta **herrittar askok** filme horretan **parte hartu euen extra lez**, papel oso desbardiñetan. **Arazo latzena**, baiña, **nobelan eta gidoian eguen**: 1936ko udazkenian Arrasaten eta inguruko herrixetan gertatu ziran sarraski bildurgarriak benetan pasau ziran moduan kontau biharrian, **erdi-asmatuko bertsiziño faltuan** erakusten dosku P. Boutron-en obra honek.

Ba, aste honetan bertan ekingo xaue Oñatin **filme barri** baten grabaziñuari: **Manu Gómez** arrasatearrek zuzendutako **Érase una vez...Euskadi** titulua eukiko dauen lanari, hain zuzen be. **Gaixa 1985eko udan** kokakuta dago: garai haretako Euskal Herriko giro gatazkatsu eta nahasixan **hamabi urteko lau mutikok** euren oporraldi-egunetan **dakoin bizipen gorabeheratsuak** agertuko ei dau **Beatriz Bodegasek** ekoiztutako pelikula honek. Kasu honetan, seguru asko, eztogu ikusiko aurrekuak herrixan eragin eben mobidarik, hemen **barruko eszena batzuen irudixak bakarrik** hartuko diralako. Horretarako aukeratuko dauen tokixa Mikel Aozaraza kalian daguen **Oruetaneko etxia** da. Eraikuntza hori **Jose Orueta araoztarrak** jaso eben 1912-1913 aldera, aurretik han eguen beste etxe bat erosi eta bota ondoren. Orduan Lekunbarri aldeko etxerik barrixena izango zan; orain, barriz, zaharrena, inguruko danak barriztaue egin dittue-eta. Dana dala, hau be laister ordezkaittekotan dira.

Argazkixak Kontzejupetik aldizkariko artxibokuak dira eta Iñigo Arregik ataratuak.
Xabier Zelaiak argibide batzuk samurtu dosku. Eskerrik asko!